

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Zi, ezkur, kuzkur

INTXAUR ETA GINGIL-HUR BEZALA hur hitzetik etorriko da, noski edo, ezkur. Zi edo kuzkur ere deitzen den ezkurra. Hurra bezala ezkurra ere berebiziko jatena zen garai batean. Txerria, etxeko animalia gus-tukoena izateaz gain, gure aurrekoak gozo eta gori mantendu dituen lauhankakoa da. Harizti ederrik mantentzen duen Ultzama eta inguruetako bailaretan ezkurriari “pasto” deitzen diote, bazka alegia. Txerria bitarteko, ezkurra urdai bihurtuta gure bazkaren gozagarria egiten zen, urte osorako! Ezkur guztia ez zen, ordea, txerriaren urdailean ehotzen.



PHIL SELLENS-CC BY SA

Ezkurra, *Quercus ilex*.

Erromatarrek Iberiara iritsi ziren garaiko erro-tan aurkitutako irin arrastoak aztertu dituzte. Anali-sion arabera irinaren %44 *Quercus* generoko ezkurre-na da, eta %33 besterik ez laboreena. *Quercus* generoan haritza (*Q. robur*) eta artea (*Q. ilex*) aipatzen dira, batik bat, baina geurean ametza (*Q. pyrenaica*), abaritza (*Q. coccifera*), artelatza (*Q. suber*), haritz kan-dugabea (*Q. petraea*), ametz ilaunduna (*Q. humilis*) eta erkametz (*Q. faginea*) ezkur emailleak ezin ahantzi.

Euskaldunon urdailak ere ezkurra beratu eta eho-tzea zer den badaki. Asiatik abiatu eta Mediterraneo-tik barrena lurra lantzen erakutsi zigun Neolitoa iris-terako ezkurretik ederki tirako zuten euskaldunon haginek. Hemen baba eta ezkurarekin egindako ogia jango zen garaian, garia eta beste laboreak mizkinzale mainatsuenen gutizia garestia izango ziren. Jende txi-roarena zen, baita ere, zekalearekin egindako otasa eta, erromatarren bisitaren ondoren, gaztaina-irinez-ko ogia. Ameriketako bueltara arte ere ohikoa izango zen artatxiki-irinezko ogia. Joan-etorri honen ondo-rengoa artoa, arto-irinezko artoa edo opila.

Ezkurrera bueltatuz, Estrabonek duela 2.000 urte idatzi zuen hemen urtearen hiru laurdenetarako nahikoa jaki izaten zutela ezkurarekin, eta haren iri-nez iraupen luzeko ogia egiten zutela. Garai ber-tsuari Pliniok ere hemengo ezkur irinezko gozokiak aipatzen ditu. Espainian barrena oraindik ezkur ogia topatu daiteke, baita ezkur likorea ere. Hemen jakin-tza hori erabat galdu dugulakoan nago. Garai batean ezkurren artean gozoak, mikatzak, gaziak, eta abar ederki bereiziko genituen. Arteen artean, adibidez, mikatza da *Quercus ilex* subsp *ilex* azpiespeziearen alea, gozoa aldiz *Quercus ilex* subsp *ballota* azpiespe-ziearena.

Hamaika eta hamalau

Europar ditugun kakalardoehuneko hamaika eta burduntzi edo sorgin-orratzen ehuneko hamalaua desa-gertzeko zorian jarriak ditugu. Nekazaritzaren indus-trializatzea, klima aldaketa, suteak eta lurraren artifizial-tzea dira egoera gorri honen arrazoi nagusiak.

Hau gutxi balitz gure kontinente honetan bertakoak ditugun tximeleten heren bat galzorian dauzkagu, arra-zoi berberengatik.

Handiari soilik begiratzeari utzi eta gure bizitza bere baitan hartu eta eusten duten ekosistemetan animalia txikiok duten garrantzia aitortu beharko genuke, eta zaindu. Gure burua zaintze aldera...

Bolaleku S.A.T.

Konpost planta

Bi•lurra
Compost ongarri organikoa

LORE•LURRA
Sustrato unibertsala

Lur begetal ongarritua, ereindakoa, estaltzekoa,
ldor apaingarriak, trabesak.

Bakio bidea, 13 (Emerando)
Tlf.: 94 674 33 55
677 42 64 00
www.bolaleku.com

48100 Mungia
Bizkaia